

KASUEN EBAZPENA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBARRIA, JOSUNE

KASUEN EBAZPENA

1.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Hitzezko hizkuntza desegokia duen ikaslea (taldeko langileekin familiartasun handiegia, hitz desegokiak, balio-juizioak) edota hitzezkoa ez den hizkuntza deigarria duena (jarrera oso lotsatia, espazioa inbaditzea, gaitzespen-keinua, hitzezko hizkuntzaz lagundua ez dena)

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

2 Itema. Atea jotzen du gelara sartu aurretik, bere burua aurkeztu eta pertsoneri hitz egiten die bere izena erabiliz, errespetuz eta adeitasunez, hitzezko mintzaira eta hitz gabeko mintzaira egokiak erabiliz (begirada, gorputz-jarrera, aurpegiaren espresioa, irribarrea ...)

Egoeraren aurre egitea

-Egoera honi, momentuan aurre egitea gomendatzen da, tutoretzaren zain egon gabe.

-Ikaslearekin landu beharrekoak:

Ikaslearen rola garatzea.

- Ikasleak komunikazio-modu berri bat integratu beharko du, bere rol profesionalaren garapenarekin bat datorrena. Lagunarteko komunikazio estiloa, laguntasun-eredukoa da eta ikaslea agerian geratzeaz gain, pazienteari ez dio laguntzen.
- Jokabide horiek alde batera utzi beharko ditu, rol helduagoa hartzen hasteko, errespetuzko komunikazio-eredu zuzen baten eta esparru profesional bateko lankidetzaren-eredu baten barruan.

Komunikazio- trebetasunak:

- Pazienteari bere izenez deitzea, zuka aritzea, jarrera eta distantzia egokia izatea (ikasleek *Zainketarako Harremana eta Komunikazioa* ikasgaietan landu dute)

2.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Zikloa hasi ondoren praktiketan hasten den ikaslea. Aurretiko tutoretzan, errekupeazioen egutegi bat planteatzen da irakasle tutorearekin, larunbatak barne hartzen dituena. Bigarren tutoretzan antzeman da ikasleak ez duela larunbatetan errekupeatu eta orduka errekupeatu duela, ez dagoelako ados, prestakuntzaren atzerapena ezarritako egutegietan izandako akats batengatik dela uste duelako. Autoebaluazioa ere ez du garaiz bidaltzen.

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

9 itema. Bete egiten ditu eginbehar formalak: garaiz iristen da, itxura garbia eta zaindua du, eta behar bezala unformatuta dago, eta jakinarazi egiten ditu ustekabeak (atzerapenak, faltak...)

22 itema. Bere gain hartzen du bere egitekoek, erabakiek eta ekintzek eskatzen duten erantzukizuna.

Egoeraren aurre egitea

- Egoera hau irakasle tutoreari lehenbailehen jakinaraztea komeni da, tutoretzan elkarrekin (irakaslearen eta irakasle tutorearen artean) lantzeko.
- Irakasle tutoreak errekupeazioen egutegia zergatik ez den bete aztertu behar du.
- Irakasle tutoreak ezinbesteko item bat (9. itema) ez betetzearen ondorioak ezagutzen dituen galdetuko dio ikasleari. Ikasleak ulertu beharko du erabakiarekin ados ez egoteak eta desadostasuna adierazi ahal izateak ez dakarrela erabakia ez betetzea.
- Irakasle tutoreek egindako proposamena, praktika-zikloaren bigarren erdian ez betetzeak, praktika-zikloa ez gainditzea ekarriko du.

3.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Lehen mailako arretan paziente kronikoaren jarraipena egiteko erizaintzako kontsultan, ikaslea edukietan hezten hasten da, erabiltzaileak aurretik dakiena, jakin nahi duena eta bere espektatibak eta trebetasunak zein diren aztertu gabe.

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

5 itema. Erabiltzaileari edota senideei informazioa eman aurretik, gaiari buruz zer dakiten ikusten du eta informazioa eman ondoren egiaztatu egiten du ulertu egin dutela eman zaien informazioa, eta argitu edo zuzendu egiten ditu sortzen diren zalantzak.

Egoeraren aurre egitea

- Egoera honi, momentuan aurre egitea gomendatzen da, tutoretzaren zain egon gabe.
- Ikaslearekin aztertu zergatik ez dituen aztertzen pazientearen itzaropenak eta ezagutzak
 - o Esan behar zuenarekin oso zentratua egoteagatik, ez badu pazientea kontuan hartu.
 - Kontuan izan beharko du kontsulta prestatzen duenean, pazienteak zer dakien eta zer itzaroten duen jakitetik hasi behar duela.
 - o Bere ustez, eman beharreko informaziorako ez da beharrezkoa pazienteak zer dakien jakitea.
 - Azpimarratu behar da beti dela garrantzitsua pazienteak ezagutzen duena eta dakiena aztertzea, informazioa doitu ahal izateko.

4.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Zentro gerontologiko batean praktikak egiten ari den ikasleak, egoiliar bat eta haren familia (ezagunak, udalerriko bizilagunak) artatzen ditu, eta etxean gurasoek galdetzen diote ea badakien ezagun hau ingresatu dutela, zergatik, zer gertatzen zaion ba ote dakien, seme-alaba guztiek ez zutela egoitzan sartu nahi... Nola erantzun behar die gurasoei?

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

7 itema. Bermatu egiten ditu konfidentziasuna eta sekretu profesionala, eta horretarako zaindu egiten du erabiltzaileen informazio pertsonalaren eta klinikoaren pribatutasuna.

Egoeraren aurre egitea

- Egoera honi, momentuan aurre egitea gomendatzen da, tutoretzaren zain egon gabe.
- Komenigarria da jakitea ikasle guztiek UPV/EHUren konfidentziasun-dokumentua ziklo bakoitzaren aurretik sinatzen dutela, legezko balioa duela eta espediente akademikoan artxibatuta geratzen dela.
- Ziklo bakoitzaren aurretik sinatzen duen konfidentziasun-konpromisoa eta horrek dakarren esanahia eta konpromisoa gogorarazi beharko dizkiogu ikasleari.
- Ondoren, komunikazio-tresnak eman beharko ditugu, egoera horretan dagoenean gaiari aurre egiteko:
 - o Atertiboan izan behar du informazioa eskatzen dioten pertsonekin, eta adierazi behar die beren prestakuntza (eta gero lanbidean) ezin dutela pazientearen daturik eman. Role-playing bat egin daiteke egoerarekin, egoera horretan nola moldatzen den ikusi ahal izateko.
 - o Ikasleak besteengandik jasoko duen erantzunari buruz ere hausnartu beharko du (batez ere familia-ingurunea bada), familiaren konfiantza eta konfidentziasuna bermatuko dela adierazten badiote ere, bere jarrerari eutsi beharko dio.
 - o Ikasleak ulertu behar du garapen profesionalerako ikasteko modu bat dela, gainerako ikaskuntzak bezala.

5.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Tutoretza egiterakoan, ikasleak ez du ondo hartzen instruktoreak eta irakasle tutoreek ematen dioten feedbacka. Haserretu egiten da eta bera, agintzen diotena egitera mugatzen dela esaten du.

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

13 itema. Ikasteko interesa erakusten du eta baita hobetzeko jarrera ere: arretaz behatzen du prozedurak burutzeko modua, galdetu egiten du ikasteko, onartu egiten ditu proposatzen zaizkion hobekuntzak eta martxan jartzen ditu; eta beregain hartzen du bere ikaskuntzaren erantzukizuna.

Egoeraren aurre egitea:

- Ikasleari galdetu behar diogu zein den haserrearen arrazoia, nondik heldu behar diogun jakiteko. Bere segurtasunetik ezetik, autokritikarako gaitasun gutxitik, bere funtzioen eta rolaren ezjakintasunetik edo bestela, balorazio txar baten beldurretik.
- Lehenengo kasuan, aitortu behar diogu segurtasun eza normala dela prestakuntza-aldian, ikaskuntza berriak barneratze prozesuan. Segurtasunik eza ez da negatiboa ikaskuntzaren une bakoitzean gainditzen bada, ikaskuntzaren prozesuaren parte baita.
- Bigarren kasuan, ikasleak ulertuko du feedbacka ez dela kritika bat, ezta fiskalizazio bat ere, hobetu beharreko gauzak adierazteko modu bat baizik. Horrela jorratzen badugu, defentsiban jartzen ez diren ikasleak izango ditugu. Ez dago inor gauzak lehenengoan ondo egiten dituenik.
- Ikaslea haserretu egiten bada inork ez ziolako jakinarazi zer egin behar zuen, hau momentu egokia izango da ikasle gisa dituen funtzioak (ikasteko eta hobetzeko prestasuna, interesa) eta horiek gauzatzeko modua argitzeko.
- Haserrea notak eragindako kezkagatik bada, berriz ere errepikatuko diogu hobekuntzak proposatzea dela helburuak lortzeko eta ikaskuntza-aldia amaitzean emaitza ona lortzeko modua.

6.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Erizaintzako laguntzaileekin oheak eta garbiketak egin eta otorduetan laguntzeko erresistentziak dituen ikaslea, unitateko erizainek halakorik egiten ez dutela adieraziz.

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

21 itema. Ezagutzen du mugitzen den osasun-esparrua eta identifikatu egiten ditu taldekideen rol desberdinak.

Egoeraren aurre egitea:

- Egoera honi, momentuan aurre egitea gomendatzen da, tutoretzaren zain egon gabe.
- Ikaslearekin landu beharko dugu prestakuntza-prozesuan duen ikasle-rola, erizain batek betetzen duenarekiko desberdina baita.
- Ikasleak gogoratu eta argi izan behar du teorian landutako gaitasunak direla, eta praktiketan osatu behar duela horien ikaskuntza.
- Ikasle gisa erizain batek delegaturiko zainketa guztiak egiten ikasi beharko du, nahiz eta horrek normalean egiten dituzten laguntzaileekin batera praktikan jartzea suposako duen.

7.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Espero baino kalifikazio txikiagoa lortu ondoren, irakasleari hitz egiteari utzi eta taldeko gainerako kideei iritziak eskatzen dizkien ikaslea.

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

39 itema. Ondo kudeatzen ditu bere emozioak (estres egoerak, kontaktua sufrimenduarekin...)

Egoeraren aurre egitea

Aldez aurreko hausnarketak

- Instruktoare eta irakasle tutoreek ulertu behar dute tutoretza-prozesua lehenengo tutoretzarekin eta harrerarekin hasten dela eta kalifikazioarekin amaitzen dela. Prozesu horretan, etengabe feedback-a eman behar zaio ikasleari une desberdinetan (baita egunerokoan ere, hemen eta orain), bere ikaskuntza hobetzen joan dadin eta bere ikaskuntza-prozesuarekiko espektatibak egokitu ditzan. Tutoretza-modu horren ondorioz, ikaslea hobeto jabetzen da bere hobekuntza-arloez, eta aukera gehiago ditu arlo horiek gainditzeko joateko.

Prozesua jarraitutasunez egiten bada, litekeena da erresistentzia gutxiago izatea prozesuaren amaieran.

- Horrelako egoeretan ere garrantzitsua da ikaslearen irakaskuntzan parte hartu duten erizainen taldearekin komunikatzea. Garrantzitsua da ikasleari mezua bakar bat ematea, egoera ulertzen laguntzeko eta hainbat mezurekin nahasterik ez sortzeko. Hemen ez da hain garrantzitsua ikasleak desadostasuna erakustea eta taldeari galdetzea, taldeak ematen dion erantzuna baizik.

Tutoretzan ikaslearekin:

- Ikasleari bere prestakuntzan zehar jaso dituen feedbackak gogorarazi behar zaizkio, bai positiboak, bai hobetu beharrak, hartutako erabakiak uler ditzan saiatuz.
- Talde osoaren ikuspegia dela ere adierazi behar zaio (hala izan bada). Taldean iritzi desberdinak badaude, garrantzitsua da

instruktoareak jakitea bera dela tutoretza prozesua eta ebaluazioaren inguruan prestakuntza jaso duena.

- Ikasleak erresistentzia badu, galdetu zein den bere desadostasuna, eta erabilitako irizpideak argudiatzen dituen irizpideekin alderatzen saiatu.
- Askotan, ikaslea notan zentratuta egoten da, eta ez ikaskuntza-prozesuan. Garrantzitsua da alde hori azpimarratzea. Erizaina denean, inork ez dio notari buruz galdetuko, ordea, gaitasunak erakustea eskatuko zaio.

8.KASUAREN ARIKETA

Egoera:

Ikasle batek "nola erlazionatzen zara lantaldearekin?" Gogoetazko praktika atalean honako hau idatzi du: "Gaizki sentitzen naiz erizain batek sota aurpegiarekin begiratzen nauelako".

Zein itemekin lotzen da jokabide hau?

11 itema. Asertibitatea erakusten du: adierazi egiten ditu sentimenduak, iritziak eta pentsamenduak, gainerakoek eskubideei uko egin gabe edo aintzat hartzeari utzi gabe.

Egoeraren aurre egitea

Aldez aurreko hausnarketak

Tutoretzari ekin aurretik zera hausnartu beharko dugu, ikasleak lortu beharreko helburua izan arren, egoera hori gertatzen den profesionalak komunikazio egokia edo asertiboa praktikatzen ez badu, ez dela posizio erraza. Horrela, ikaslea posizio asimetrikoan dago erizainarekiko.

Tutoretzan ikaslearekin:

- Ikaslearekin batera egoera hori zein testuingurutan gertatzen den aztertu beharko dugu. Askotan egoerak pertsonalizatzen dira esamolde hori ikasleari zuzenduta ez egonda, ikaslearen interpretazioa izanik.
- Testuinguru horretan gertatzen bada beti, galdetu beharko diogu: zergatik uste duzu gertatzen dela egoera hori? Zergatik ez duzu egoera hori erizainarekin jorratu? Zer esan nahiko zenioke? Zergatik ez diozu galdetu?
 - o Galdera horiei erantzunez, ikasleari estilo asertiboko tresnak ematen ari gatazka egoerari aurre egin ahal izateko.
- Hortik aurrera, egoera hori zein unetan gertatzen den identifikatzera animatu ahal izango dugu, eta deseroso sentiarazten duen zerbait dagoen galde diezaion. Horretarako, ikasleak gustuko ez duen iruzkinen bat jasotzeko prest egon behar du, eta horri buruzko autokritika ere egin beharko du.

- Aprobetxatu behar dugu, halaber, ikasleari adierazteko, ez dagoela beti bat etortzerik taldeko pertsona guztiekin. Horren aurrean, errespetua mantentzea da muga. Errespetu-falten aurrean esku hartu behar delarik.